10. Previamente a su iniciación consta el informe de la Tesorera y de la Técnica de Tributos de 3 de julio de 2025 y el informe jurídico de 3 de julio de 2025 de la Asesora jurídica y de la Tesorera que proponen desestimar el escrito interpuesto por don EIBL entendido como recurso de reposición y el inicio de la revisión de oficio y requerir a los servicios municipales informe sobre la posible nulidad de pleno derecho.

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

11. Osoko Bilkuraren erabakiak likidazio horrekin lotutako aurreko bi espediente jasotzen ditu: (I) 2024VZE0014 espedientea —ordaindutako zenbatekoaren likidazioa eta itzulketa «berrikusteko» interesdun berberek egindako eskaerari buruzkoa, zeina ezetsi baitzen 2024ko irailaren 24ko kontzeju-ogasun ordezkariaren 2024/2611 Dekretuaren bidez —; eta (II) 2024VZAE0119 espedientea, abokatuak, interesdunen ordezkari gisa, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboari buruzkoa, izapidetzeko onartu ez zena eta Errenteriako Udalari bidali zitzaiona, berraztertzeko errekurtso gisa izapidetzeko.

11. El acuerdo del Pleno incorpora dos expedientes anteriores relacionados con la citada liquidación: (I) el expediente 2024VZE0014 —relativo a la solicitud por los mismos interesados de "revisión" de la liquidación y devolución del importe abonado, desestimada por Decreto 2024/2611 del Concejal-Delegado de Hacienda de 24 de septiembre de 2024—; y (II) el expediente 2024VZAE0119 relativo a la reclamación económico-administrativa instada por abogado en representación de los interesados ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa, inadmitido a trámite y remitido al Ayuntamiento de Errenteria para su tramitación como recurso de reposición.

12. Udalak jasotako aipatutako erreklamazio ekonomiko-administratiboari dagokionez, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariaren 2025eko apirilaren 2ko Dekretuak ezetsi egiten du Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak eta Udalak 2024/2611 Dekretuaren aurkako «berraztertzeko errekurtso» gisa kalifikatutakoa —gogorarazten dugu dekretu horrek 2024ko maiatzaren 9an likidazioaren zenbatekoa berrikusteko eta itzultzeko egindako eskaera ezetsi zuela—.

12. En relación con la citada reclamación económico-administrativa recibida por el ayuntamiento, el Decreto del Concejal Delegado del Área de Hacienda de 2 de abril de 2025 desestima el calificado por el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa y por el ayuntamiento como "recurso de reposición" contra el Decreto 2024/2611 —recordamos que dicho decreto desestimó la anterior solicitud de 9 de mayo de 2024 de revisión y de devolución del importe de la liquidación—.

13. Ezesteko egintza horrek aurreratzen du udalak hasiera emango diola lehen aipatutako ofiziozko berrikuspen-prozedurari «interesdunari kalterik ez egiteko» — esan bezala, 2025eko uztailaren 15eko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez abiarazi zen—, nahiz eta uste duen interesdunak ez duela eskatu zergaren likidazioa ofizioz berrikusteko, baizik eta bidegabe kobratutako zenbatekoa itzultzeko bakarrik. Batzordea ez dago ados horrekin.

13. Dicho acto desestimatorio anticipa que el ayuntamiento iniciará el procedimiento de revisión de oficio citado anteriormente "con el fin de no perjudicar a la persona interesada" —como ha quedado dicho, se incoa por Acuerdo del Pleno de 15 de julio de 2025—, a pesar de que entiende que el interesado no ha instado una revisión de oficio de la liquidación del impuesto, sino únicamente la devolución del importe indebidamente cobrado. La Comisión no comparte tal apreciación.

14. 2024ko maiatzaren 9an, EIBL jaunak HLBGZaren kontzeptuan bidegabe kobratu zioten zenbatekoa itzultzeko eskatu zuen —7.428,12 euro, gehi dagozkion interesak; 1.713,76 euroko kuantifikazioa guztira—, eta uzi hori otsailaren 28ko 339/2024 AGEan oinarritzen du, zeinak, aipatutako idazkian hitzez hitz ezarritakoaren arabera, «ebazten baitu udal

14. Con fecha 9 de mayo de 2024, don EIBL solicita la devolución del importe indebidamente cobrado en concepto de IIVTNU —7.428,12 euros más los intereses correspondientes, en una cuantificación que asciende a 1.713,76 euros— y fundamenta dicha pretensión en la STS 339/2024, de 28 de febrero, que, en los términos literales del referido escrito, "dictamina que el cobro de

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

gainbalioen kobrantza, gainbaliorik egon ez denean, erabat deuseza dela, eta, horrenbestez, udalei likidazio horiengatik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango zaiela, dagozkion interesekin».

15. Itzultzeko uziari eusten dion likidazio-egintzaren deuseztasun-oinarriaren arabera, udalak GZFAOren 228.3 artikuluan ezarritakoa bete behar zuen (horren arabera, «Okerreko sarrera egiteko erabili zen zergen aplikazioari edo zigorren ezarpenari buruzko egintza irmo bihurtzen denean, hura itzultzeko eskatu ahal izango da bakarrik egintzaren berrikuspena eskatuz edo sustatuz, foru arau honek 223. artikuluaren a), c) eta d) letretan jasotako berrikuspen prozedura berezietako baten bidez eta 246. artikuluan araututako aparteko berrikuspen errekurtsoaren bitartez»), eta egintza erabat deusezen berrikuspen-prozedura hasitzat jo.

16. Nolanahi ere, Francisco Garcia Dominguez jaunak, EIBL jaunaren eta LEE andrearen ordezkari gisa, 2024ko urriaren 15ean Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboak (kalifikazioan asmatu edo ez) babestu egiten du HLBGZaren likidazioaren erabateko deuseztasuna deklaratzeko eskaera.

17. Azken batean, ulertu behar da interesdunek eskatu dutela ofizioz berrikus dadin aurretik esandako idazkietan xehetasunez identifikatutako likidazioa, deuseza dela deklaratzeko eta, ondorioz, HLBGZaren kontzeptuan ordaindutako printzipala eta haren interesak itzultzeko. Hala bada, funtsean betetzen dute, gainera, 41/2006 Foru Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa, hasteko eskaeraren edo idazkiaren edukiari dagokionez.

18. Prozedura izapidetzen ari zela egindako txostenei dagokienez, udaleko diruzainak 2025eko azaroaren 3ko txosten-proposamena egin du, ofiziozko

plusvalías municipales cuando no ha habido tales plusvalías son nulas de pleno derecho por lo que se podrá solicitar de los Ayuntamientos la devolución del importe pagado por tales liquidaciones, con los intereses correspondientes".

15. A tenor del fundamento de nulidad del acto liquidatorio que sostiene la pretensión de devolución, el ayuntamiento debió atender a lo establecido en el artículo 228.3 de la NFGTG, en cuya virtud, "Cuando el acto de aplicación de los tributos o de imposición de sanciones en virtud del cual se realizó el ingreso indebido hubiera adquirido firmeza, únicamente se podrá solicitar la devolución del mismo instando o promoviendo la revisión del acto mediante alguno de los procedimientos especiales de revisión establecidos en las letras a), c) y d) del Artículo 223 y mediante el recurso extraordinario de revisión regulado en el Artículo 246 de esta Norma Foral", y considerar iniciado el procedimiento de revisión de actos nulos de pleno derecho.

16. En todo caso, la reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa que, con mayor o menor acierto en su calificación, interpone don Francisco García Domínguez, en representación de don EIBL y doña LEE, con fecha 15 de octubre de 2024, avala la solicitud de declaración de nulidad de pleno derecho de la liquidación del IIVTNU.

17. En definitiva, debe entenderse instada por los interesados la revisión de oficio de la liquidación identificada con pormenor en los escritos antedichos, a fin de declarar su nulidad y consiguiente devolución del principal satisfecho en concepto de IIVTNU con sus intereses, siendo, además, que cumplen en lo esencial lo establecido en el artículo 2 del Decreto Foral 41/2006, en relación con el contenido de la solicitud o del escrito de iniciación.

18. Respecto a los informes emitidos durante la tramitación del procedimiento, se han dictado por la Tesorera del ayuntamiento informe-propuesta de 3 de

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

berrikuspenaren aurkako iritzia adierazita.

19. Entzunaldiaren izapideari dagokionez, 2025eko irailaren 4an egin zen, mugatuta, eta haren ondorioz Batzordearen 1/2026 Erabakia izan zen, zeinaren bidez espedientea udalari itzuli baitzitzaion, instrukzioa osa zezan, eta interesdunari «espedientean dauden jarduera guztiak ikusita alegazioak egiteko aukera» eman zekion. Berriro ere, 2026ko maiatzaren 5ean, entzunaldi-izapide hori egiaztatu da, legez eskatutako baldintzetan, eta, horren ondorioz, EIBL jaunak alegazio-idazkia aurkeztu zuen urte eta hil bereko 7an.

20. Berrikuspen-prozeduraren bigarren faseari hasiera ematen zaio kontsulta Batzorde honi bidalita, ofiziozko berrikuspenaren aurkako ebazpen-proposamenarekin batera.

21. Ebazteko eta administrazio-erabakia jakinarazteko epeari dagokionez, adierazi behar da ezen, espedientea Batzordearen esku utzi denean, igarota zegoela GZFAOren 224. artikuluan ebazpena emateko eta jakinarazteko finkatutako urtebeteko epea.

22. Alabaina, Batzordeak bere irizpenetan adierazi duenez, partikular batek eskatuta hasitzat hartu beharreko ofiziozko berrikuspena izanik, prozedurarekin aurrera jarraitu behar da, inguruabar horrek ez baitu Administrazioa salbuesten berariazko ebazpen bat emateko betebeharretik (APELen 21.1 artikulua eta GZFAOren 99.1 artikulua) eta, isiltasuna ezeslea denez (APELen 91.3 artikulua eta GZFAOren 224. artikulua), ebazpenak ez du zertan bat etorri isiltasunaren esanahiarekin.

**1) <u>ESKAERAREN FUNTSAREN AZTERKETA</u>**

noviembre de 2025 en el que se manifiesta en sentido desfavorable a la revisión de oficio.

19. En lo referido al trámite de audiencia, el mismo se realizó, limitadamente, con fecha 4 de septiembre de 2025, lo que dio lugar al Acuerdo 1/2026 de la Comisión, por el que se procedió a devolver el expediente al ayuntamiento para que completase la instrucción con el fin de que se le otorgase a la parte interesada “la posibilidad de realizar alegaciones a la vista de la totalidad de las actuaciones obrantes en el expediente”. Nuevamente, con fecha 5 de mayo de 2026 se ha verificado el citado trámite de audiencia en los términos legalmente exigidos, de resultas del cual don EIBL presenta escrito de alegaciones el día 7 del mismo mes y año.

20. La segunda fase del procedimiento de revisión se inicia con la remisión de la consulta a la Comisión, acompañada de la propuesta de resolución que se manifiesta en sentido desfavorable a la revisión de oficio.

21. En orden al plazo para resolver y notificar la decisión administrativa, debe señalarse que el expediente se somete a la Comisión tras haberse superado el plazo de un año establecido en el artículo 224 de la NFGTG para resolver y notificar la resolución.

22. No obstante, como señala la Comisión en sus dictámenes, tratándose de una revisión de oficio que debe entenderse instada a solicitud de un particular, procede continuar con el procedimiento ya que tal circunstancia no exime a la Administración del deber de dictar una resolución expresa (artículo 21.1 LPAC y artículo 99.1 de la NFGTG) y, tratándose de un silencio desestimatorio (artículo 91.3 LPAC y 224 de la NFGTG), no existe vinculación alguna al sentido del mismo.

**2) <u>ANÁLISIS DEL FONDO</u>**

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

**α. Aurrekari faktiko garrantzitsuak**

23. Funtsa aztertu aurretik, Batzordeak beharrezkotzat jotzen du bidalitako administrazio-espedientetik eta beste dokumentazio publiko batetik ondorioztatzen diren aurrekariak jasotzea, eta honako datu garrantzitsu hauek atera dira.

24. 2010eko martxoaren 18an eskritura publiko bihurtu zen beheko solairuko eskuineko eta sotoko lokalen salerosketa. Lokal horiek Errenterian daude, Nafarroa etorbideko 73 eta 71 zenbakietan, hurrenez hurren. Alde saltzaile gisa Banco Popular Español SA ageri da, eta alde erosle gisa, LEE andrea eta haren ezkontidea, EIBL jauna. Salmentaren prezioa 939.300 eurokoa izan zen.

25. 2014ko uztailaren 9an, Pendusopark SA merkataritza-sozietatearen eraketa argitaratu zen Merkataritza Erregistroaren Aldizkarian (BORME), nahiz eta eragiketak 2014ko martxoaren 19an hasi zituen. Sozietatearen helburua da era guztietako etxebizitzak, lokalak, garajeak eta higiezinak erostea, edukitzea, administratzea eta ustiatzea, hala hirikoak nola landakoak. Sozietatearen helbidea bat dator LEE andrearen eta EIBL jaunaren ohiko bizilekuarekin. Jasota dago LEE eta EIBL administratzaile solidario izendatu izana, eta haiek berriz hautatzea 2021eko urtarrilaren 14an argitaratu zen BORMEn.

26. 2016ko otsailaren 9an eskritura publiko bihurtu zen salerosketa, lehen deskribatutako lokalaren eta sotoaren hipotekak subrogatuta. Horri dagokionez, honako datu hauek nabarmendu behar dira:

a. LEE andreak eta EIBL jaunak alde saltzaile gisa parte hartzen dute, eta alde erosle gisa ere parte hartzen dute; azken kasu horretan, Pendusopark SA merkataritza-sozietatearen izenean eta ordezkaritzan parte hartzen dute, haren administratzaile solidario gisa.

b. Salmentaren prezioa 900.000 eurokoa izan zen.

**a. Antecedentes fácticos relevantes**

23. Con carácter previo al estudio del fondo, la Comisión considera necesario plasmar los antecedentes que se desprenden del expediente administrativo remitido y de otra documentación pública, resultando los siguientes datos relevantes.

24. Con fecha 18 de marzo de 2010 se eleva a escritura pública la compraventa del local de planta baja derecha y del de planta sótano, sitos en Errenteria, avenida de Navarra, 73 y 71, respectivamente. Consta como parte vendedora el Banco Popular Español, S. A., y como parte compradora, doña LEE y su cónyuge, don EIBL. El precio de la venta fue de 939.300 euros.

25. Con fecha 9 de julio de 2014 se publica en el Boletín del Registro Mercantil (BORME) la constitución de la mercantil Pendusopark, S.A., aunque el comienzo de operaciones data del 19 de marzo de 2014. Su objeto social es la adquisición, tenencia, administración y explotación de toda clase de viviendas, locales, garajes y de inmuebles, tanto urbanos, como rústicos, etc. Su domicilio social es coincidente con el de la residencia habitual de doña LEE y don EIBL. Consta el nombramiento de doña LEE y de don EIBL como administradores solidarios, cuya reelección se publica en el BORME de 14 de enero de 2021.

26. Con fecha 9 de febrero de 2016 se eleva a escritura pública la compraventa con subrogación de hipotecas del local y sótano descritos anteriormente, de la que interesa destacar los datos siguientes:

a. Intervienen como parte vendedora doña LEE y don EIBL, y también lo hacen como parte compradora; en este último caso, intervienen en nombre y representación de la mercantil Pendusopark, S.A., como administradores solidarios de la misma.

b. El precio de la venta fue de 900.000 euros.

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

27. Egun horretan —2016ko otsailaren 9an—, EIBL jaunak, Pendusopark SAren administratzaile solidarioa den aldetik, ziurtatzen duenez, egun berean Ezohiko Batzar Orokor Unibertsala bildu zen, sozietatearen egoitza sozialean —EIBL jaunaren eta LEE andrearen ohiko helbidea—, akziodun guztiak bertaratuta, eta haiek, aho batez, honako erabaki hauek hartu zituzten:

a. EIBL jaunari eta LEE andreari aurreko paragrafoetan esandako lokalak erostea, 900.000 euroko prezioan, eta sozietate eroslea, Pendusopark SA, zordun gisa subrogatzea, 725.486,02 euro ordaintzeko, hipoteka-bermedun bi mailegutan —jarraian deskribatuta—, zeinen hartzaileak EIBL jauna eta LEE andrea baitira.

b. Subrogatu beharreko maileguen epea eta interes-tasa berritzea.

c. Administratzaile solidarioei (LEE andrea eta EIBL jauna) ahalmena ematea notarioaren aurrean agertzeko eta aurreko erabakiak publiko egiteko, bai eta erabakiak erabat efikaz izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduerak egiteko ere.

28. 2016ko ekainaren 30ean, HLBGZaren likidazioa eman zen (ERREF. 067900175963; Ordainagiri-zenbakia: 670; 2016. urtea; Epea: 81). LEE andrea subjektu pasibo gisa identifikatu da, eta kargatutako eragiketa Errenteriako Nafarroa etorbideko lokalen eskualdaketa da; zerga-zorra 7.428,12 euroan zenbatetsi da, eta 2011ko azaroaren 9a ageri da ordaintzeko azken egun gisa. Emandako ordainagirian ordainketa egiaztatzen duen zerrenda alfanumerikoa ageri da; bertan ordainketa-data («041116»), ordaindutako zenbatekoa («7.428,12») eta, ondoren, «INGR» identifikatzen dira. Eta aurretik dago testuinguru horretan, zordundutako kontu-zenbakia —3060972522 —.

29. Zerga-zorra, 7.428,12 eurokoa, 2016ko azaroaren

27. En la indicada fecha —9 de febrero de 2016—, don EIBL, en su condición de administrador solidario de Pendusopark, S.A., certifica que el mismo día se reunió la Junta General Universal Extraordinaria, celebrada en el domicilio social de la mercantil —el domicilio habitual de don EIBL y doña LEE—, con la asistencia de todos los accionistas, que adoptaron, por unanimidad, los siguientes acuerdos:

a. Comprar a don EIBL y a doña LEE los locales referidos en los párrafos anteriores por el precio de 900.000 euros, subrogándose la sociedad compradora, Pendusopark, S.A., en la posición de deudora para el pago de 725.486,02 euros, en dos préstamos con garantía hipotecaria, que describe seguidamente, de los que son prestatarios los cónyuges don EIBL y doña LEE.

b. Novar el plazo y tipo de interés de los préstamos objeto de subrogación.

c. Facultar a los administradores solidarios (doña LEE y don EIBL) para comparecer ante notario y elevar a público los anteriores acuerdos, así como para realizar cuantas actuaciones sean precisas o convenientes para la plena eficacia de los acuerdos.

28. Con fecha 30 de junio de 2016 se dicta liquidación del IIVTNU (REF. 067900175963; Núm. Rec. 670; Año 2016; Per. 81). Se identifica a doña LEE como sujeto pasivo, siendo la operación gravada la transmisión de los locales sitos en avenida Navarra de Errenteria; se cuantifica la deuda tributaria en 7.428,12 euros y consta el día 9 de noviembre de 2011 como fecha límite de pago. En el recibo expedido aparece consignada una relación alfanumérica acreditativa del pago; en la misma se identifica la fecha de pago (“041116”), el importe abonado (“7.428,12”) seguido de “INGR”, al que antecede lo que en ese contexto resulta ser el número de cuenta —3060972522— contra el que se ha hecho el cargo.

29. El pago de la deuda tributaria, por importe de

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

4an ordaindu zen, 3060972522 zenbakidun kontuan zordunduta —aipatutako ordainagirian identifikatuta ageri den kontu bera—. Pendusopark SA da kontu horren titularra. Datu horiek 2024ko martxoaren 6an aipatutako kontuan egindako mugimenduen kontsultatik atera dira. Eta gehitu egin da HLBGZaren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa eta sortutako interesak itzultzeko eskaera egiteko 2024ko maiatzaren 9ko idazkira, zeina hurrengo paragrafoan aipatzen baita.

7.428,12 euros, se realiza con cargo a la cuenta nº 3060972522 —la misma que aparece identificada en el recibo al que se ha hecho referencia— el 4 de noviembre de 2016. Pendusopark, S.A es titular de dicha cuenta. Tales datos se extraen de la consulta de movimientos realizada el 6 de marzo de 2024 de la cuenta antedicha, que se une al escrito de solicitud de devolución del importe abonado en concepto del IIVTNU y los intereses devengados, de 9 de mayo de 2024.

30. 2024ko maiatzaren 9an, EIBL jaunak «bidegabe kobratutako 7428,12 euroko zenbatekoa itzultzeko» eskatu zuen, bai eta 1.713,76 euroko interesak ordaintzeko ere. Idazkian, bere uziaren oinarriak adierazteaz gain, adierazi ere egin zuen 7.428,12 euroak 2016ko azaroaren 4an ordaindu zituela.

30. Con fecha 9 de mayo de 2024, don EIBL solicita "la devolución del importe indebidamente cobrado 7428,12", además del pago de los intereses en la cantidad de 1.713,76 euros. En dicho escrito, además de expresar los fundamentos en que sostiene su pretensión, afirma que "El 4 de Noviembre de 2016 realizo el pago de los 7.428,12".

31. 2024ko urriaren 15ean, Francisco Garcia Dominguez jaunak, LEE andrearen eta EIBL jaunaren izenean eta ordezkari gisa, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zuen, aurreko eskaera ezetsi izanaren aurka. Idazki horren lehenengo alegazioan honako hau adierazten da (azpimarratutakoa gurea da): "2016ko irailaren 12an, EIBL JAUNAK eta LEE ANDREAK ordaindu zituzten…"

31. Con fecha 15 de octubre de 2024 se interpone por don Francisco García Domínguez, en nombre y representación de doña LEE y don EIBL, reclamación económico-administrativa frente a la desestimación de la anterior solicitud. En la alegación primera de dicho escrito se manifiesta lo siguiente (el subrayado es nuestro): "Qué, con fecha 12 de septiembre de 2016, DON EIBL y DOÑA LEE abonaron en concepto de…"

**b. Erabateko deuseztasuna**

**Zerga-egintza erabat deusezen ofiziozko berrikuspena. Betekizun orokorrak:**

32. Zerga-egintza erabat deusezen ofiziozko berrikuspena salbuespenezko ahal gisa eratzen da, eta lotuta dago erabateko deuseztasuneko kausa tasatuak egotearekin, zeinak administrazio-egintza irmoetan proiektatzen baitira (GZFAOren 224.1 artikulua), bai bide horri azkena ematen diotelako, bai, administrazio-errekurtsoa jartzeko modukoak izanik, aurkaratu ez dituztelako.

**b. La nulidad de pleno derecho**

**Revisión de oficio de actos tributarios nulos de pleno derecho. Requisitos generales:**

32. La revisión de oficio de actos tributarios nulos de pleno derecho se configura como una potestad excepcional vinculada a la concurrencia de causas de nulidad de pleno derecho tasadas, que se proyectan sobre actos administrativos firmes (artículo 224.1 de la NFGTG), bien porque ponen fin a la citada vía, bien porque, siendo susceptibles de recurso administrativo, no han sido impugnados.

33. Aztertu beharreko kasuan, berrikuspena egintza irmo baten gainean proiektatzen da, eta haren aurka

33. En el caso sometido a examen, la revisión se proyecta sobre un acto firme, frente al que no cabe

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

ez dago inolako errekurtso arruntik aurkezterik.

34. Bestalde, Auzitegi Gorenak adierazi duen bezala (denen erakusgarri, Auzitegi Gorenaren 254/2021 Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, otsailaren 24koa, 8075/2019 KE, ECLI: TS: 2021:694), ofiziozko berrikuspen-prozedura bat irekitzeko eskaeren kasu zehatzean, nahitaezkoa da deuseztasun-arrazoia argudiatzea, APELen 106. artikuluak hala eskatzen duelako (baita GZFAOren 224.1 eta 3 artikuluak ere), eta arrazoitzea zergatik, kasuari eskakizun hori aplikatuta, argudiatutako kausa betetzen den.

35. Aztertutako kasuan bi eskakizunak betetzen dira. 2024ko azaroaren 15ean jarritako erreklamazio ekonomiko-administratiboak esandakoaren arabera —azken hau, azaldu bezala, ofizioz berrikusteko eskaeratzat hartu behar da, kontuan izanik nola formulatu duten—, oinarri hartzen du ZLOren 217.1.g) artikuluak eta 334/2024 AGEak aipatzen duten deuseztasun-kausa.

**Konstituzio Auzitegiak HLBGZari dagokionez hartutako erabakiak**

36. Orain arte, Konstituzio Auzitegiak HLBGZari buruzko hamazazpi epai eman ditu, bai zuzenbide komuneko araudiari dagozkionak, bai foru-araudiari dagozkionak; azken kasu horretan, lotuta daude Nafarroako Foru Komunitateko araudiarekin eta Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetako araudiarekin, ez baitu iritzirik eman Bizkaiko hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Arauari buruz.

37. Orain interesatzen zaigunari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 16ko 26/2017 Epaiak konstituzio-kontrakotzat eta deuseztzat jotzen ditu GHLBGZFAren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikuluak, «baina soilik balio-gehikuntzarik gabeko egoerak tributazioaren mende jartzen dituzten neurrian», eta 7. oinarri juridikoan (OJ) ezarritako baldintzetan.

recurso ordinario alguno.

34. Por su parte, como viene manteniendo el Tribunal Supremo (por todas, STS, Sala de lo contencioso-administrativo, nº 254/2021, de 24 de febrero, rc 8075/2019, ECLI:ES:TS:2021:694), en el caso concreto de las solicitudes de apertura de un procedimiento de revisión de oficio, es obligado invocar la causa de nulidad, por exigirlo el artículo 106 de la LPAC (también el artículo 224.1 y 3 de la NFGTG), y razonar por qué aplicando al caso esa exigencia concurre la causa que se invoca.

35. Ambos requerimientos se cumplen en el caso analizado. Se sustenta, según reza la reclamación económico-administrativa interpuesta el 15 de noviembre de 2024 —cuya calificación cabe reconducir, como ha quedado expuesto, a una solicitud de revisión de oficio, dados los términos en que aquella se formula—, en la causa de nulidad a que se refiere el artículo 217.1.g) de la LGT, así como en la STS 334/2024.

**Pronunciamientos del Tribunal Constitucional en relación con el IIVTNU**

36. Hasta la fecha, el Tribunal Constitucional ha dictado diecisiete sentencias sobre el IIVTNU, tanto referidas a normativa de derecho común, como a normativa foral, en este último caso relacionados con normativa de la Comunidad Foral de Navarra y de los Territorios Históricos de Gipuzkoa y Álava, dado que no se ha pronunciado sobre la Norma 8/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana de Bizkaia.

37. En lo que ahora interesa, la STC 26/2017, de 16 de febrero, declara inconstitucionales y nulos los artículos 4.1, 4.2.a) y 7.4 de la NFIIVTNUG, “pero únicamente en la medida que someten a tributación situaciones de inexistencia de incrementos de valor” y en los términos establecidos en su fundamento jurídico (FJ) 7.

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

38. Ildo horretatik ere jo du Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 11ko 59/2017 Epaiak, baina martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren (TOLTB) 07.1 eta 107.2.a) artikuluei dagokienez, eta horri gehitu behar zaio TOLTBren 110.4 artikuluaren konstituzio-kontrakotasun osoa eta baldintzarik gabea.

38. En términos idénticos se pronuncia la STC 59/2017, de 11 de mayo, bien que referida a los artículos 107.1 y 107.2.a) del Texto refundido de la Ley reguladora de las haciendas locales (TRLHL), aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, a la que se suma la inconstitucionalidad plena e incondicionada del artículo 110.4 del TRLHL.

39. Konstituzio Auzitegiaren 26/2017 eta 59/2017 epaiek ez dituzte inola ere mugatzen konstituzio-kontrakotasunari buruzko erabakien ondorioak, eta halakoak hasieratik bertatik daudela interpretatu behar da, azaldutako baldintzatzaileekin. Hau da, ex tunc efektuekin, nahiz eta, ikusiko denez, ondorio horri ñabardura garrantzitsuak egin zaizkion.

39. Las SSTC 26/2017 y 59/2017 no limitan en modo alguno los efectos de los pronunciamientos de inconstitucionalidad, que deben interpretarse producidos, con los condicionantes expuestos, desde su origen. Esto es, con efectos ex tunc, aunque, como se verá, tal conclusión ha sido objeto de importantes matizaciones.

40. Geroago, Konstituzio Auzitegiak zehaztu egiten du TOLTBren 107.1 eta 107.2.a) artikuluen konstituzio-kontrakotasunaren eta deuseztasunaren adierazpenaren irismena.

40. Posteriormente, el Tribunal Constitucional matiza el alcance de la declaración de inconstitucionalidad y nulidad de los 107.1 y 107.2.a) del TRLHL.

41. Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 Epaiak, urriaren 26koak, aipatutako artikuluak erabat eta baldintzarik gabe jotzen ditu konstituzio-kontrakotasuntzat, eta horrek dakar manu horiek ordenamendu juridikotik erabat kanporatzea, eta ez bakarrik gaitasun ekonomikoa adierazten ez duten egoerak tributazioaren mende jartzen dituzten heinean. Epaiaren ondorioei dagokienez, nabarmen mugatzen ditu.

41. La STC 182/2021, de 26 de octubre, declara la inconstitucionalidad de forma plena e incondicionada de los citados artículos, lo que supone la expulsión total de dichos preceptos del ordenamiento jurídico, no solo en la medida en que sometieran a tributación situaciones inexpresivas de capacidad económica. En lo referido a los efectos de la sentencia, los limita de forma intensa.

42. Hala, 6. oinarri juridikoak ezartzen duenez, HLBGZagatik sortutako zerga-betebeharrak ezin dira epaian oinarrituta berrikusteko moduko egoeratzat hartu, baldin eta, epaia ematen den egunean, behin betiko erabaki badira gauza epaituaren indarra duen epai bidez edo administrazio-ebazpen irmo bidez. Aldi berean, egoera kontsolidatutzat jotzen ditu, eta, ondorioz, ez dago haien kontra egiterik (I) epaia emateko egunean aurkaratu ez diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak, eta (II) egun horretan ZLOren 120.3 artikuluaren arabera zuzentzeko eskatu ez diren autolikidazioak.

42. Así, su FJ 6 establece que no pueden considerarse situaciones susceptibles de ser revisadas con fundamento en la sentencia aquellas obligaciones tributarias devengadas por el IIVTNU que, a la fecha de dictarse la misma, hubieran sido decididas definitivamente mediante sentencia con fuerza de cosa juzgada o mediante resolución administrativa firme. A la par, considera situaciones consolidadas y, por ende, inatacables, (I) las liquidaciones provisionales o definitivas que no se hubieran impugnado a la fecha de dictarse la sentencia y (II) las autoliquidaciones cuya rectificación no haya sido solicitada ex artículo 120.3 de la LGT a dicha fecha.

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

43. GHLBGZFAren esparruan, martxoaren 12ko 46/2024 KAEa eman zuten arte — zeinak, era berean, erabat eta baldintzarik gabe deklaratzen baitu konstituzio-kontrakoak eta baliogabeak direla aipatutako foru-arauaren 4.1, bigarren paragrafoa, 4.2.a) eta 4.3 artikuluak, azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauak egindako aldaketaren aurreko idazkeran— ez ziren ezarri konstituzio-kontrako eta deuseztasun deklaratzearen irismena eta ondorioak (4. OJ), 182/2021 KAEren antzeko moduan.

43. En el ámbito de la NFIIVTNUG, no es hasta la STC 46/2024, de 12 de marzo — que declara, igualmente, de forma plena e incondicionada la inconstitucionalidad y nulidad de los artículos 4.1, segundo párrafo, 4.2.a) y 4.3 de la citada norma foral, en redacción anterior a la modificación operada por el Decreto Foral-Norma 7/2021, de 16 de noviembre—, cuando se establecen el alcance y los efectos de la declaración de inconstitucionalidad y nulidad (FJ 4º), de modo análogo a la STC 182/2021.

**Auzitegi Gorenaren doktrina, Konstituzioaren aurkako arauetatik eratorritako zerga-likidazioen ofiziozko berrikuspenari dagokionez:**

**Doctrina del Tribunal Supremo en relación con la revisión de oficio de liquidaciones tributarias que traen causa de normas inconstitucionales:**

44. Konstituzio Auzitegien 26/2017 eta 59/2017 epaien eta 46/2024 epaiaren artean dagoen aldian, administrazioarekiko auzien epaitegien eta auzitegien zenbait erabaki izan dira, haietako asko kontraesankorrak, eta, ondorioz, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak doktrina ezarri behar izan du Konstituzio Auzitegiaren 59/2017, 126/2019 eta 182/2021 epaien ondorioak interpretatzeko, eta zergak aplikatzeko egintzak ofizioz berrikusteko aukera dagoen aztertzeko, oinarri hartuta ZLOren 217. artikuluan ezarritakoaren babesean adierazitako TOLTBren manuen konstituzio-kontrakotasuna eta deuseztasuna.

44. En el espacio temporal que media entre las SSTC 26/2017 y 59/2017 y la STC 46/2024 se han sucedido pronunciamientos de los juzgados y tribunales de lo contencioso-administrativo de distinto signo, muchos de ellos contradictorios, lo que ha obligado a la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Supremo a fijar doctrina en orden a interpretar los efectos de las SSTC 59/2017, 126/2019 y 182/2021, y la posibilidad de revisar de oficio actos de aplicación de tributos sobre la base de la inconstitucionalidad y nulidad declaradas de los preceptos del TRLHL al amparo de lo establecido en el artículo 217 de la LGT.

45. Goi Auzitegia ere ez da gelditu doktrina-gorabeheratik kanpo, eta bilakaera oso handia ikusten da Auzitegi Gorenaren 436/2020 epaitik (irizpen honen beste atal batean aipatuta) —eta haren ondoren etorri zirenak, hala nola 454/2020, 1159/2022, 1665/2022 AGEak— Auzitegi Gorenaren otsailaren 28ko 399/2024 epaira arte (199/2023 KE, ELI:ES:TS:2024:941), zeina argudiatu zuten Batzordeak aztergai duen ofiziozko berrikuspenaren eskatzaileek.

45. Tampoco el alto tribunal ha sido ajeno a la fluctuación doctrinal, al punto de evidenciar una radical evolución desde la STS 436/2020,—y las que le sucedieron; así, SSTS 454/2020, 1159/2022, 1665/2022 —, hasta la STS 399/2024, de 28 de febrero (rc 199/2023, ELI:ES:TS:2024:941), invocada por los solicitantes de la revisión de oficio que es objeto de análisis por la Comisión.

46. Aipatutako lehen epaiak (436/2020 AGE) baztertzen zuen ex tunc ondorioak onartzea konstituzio-kontrako legeak aplikatutako egintzei zegokienez; baztertu egiten zuen irmo bihurtutako zerga-likidazioak berrikusteko aukera, bai eta, ondorioz, bidegabeko diru-sarrera bat itzultzea ere,

46. La primera de las sentencias citada, STS 436/2020, mostraba una posición contraria a otorgar efectos ex tunc respecto a los actos aplicativos de leyes inconstitucionales; excluía la posibilidad de revisión de aquellas liquidaciones tributarias que hubieran ganado firmeza y, por ende, la devolución de un ingreso

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

zerga aplikatzeko egintza irmo bat erabat deuseza izateagatik.

47. Doktrina horrek ukatu egiten du Auzitegi Gorenaren 59/2017 epaiak HLBGZaren likidazio irmoak deuseztzat jotzen dituenik ZLOren 217.1.a), e), f) eta g) artikuluan oinarrituta.

48. Auzitegi Gorenaren 2023ko uztailaren 10eko epaiak (5181/2022 KE), Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 epaia interpretatuta, nabarmendu zuen epai horrek ezarritako ondorioen muga ez zela iristen beste konstituzio-kontrakotasun deklarazio batzuen irismenaren barruan zeuden egoeretara; hau da, muga horiek ez zioten eragiten Konstituzio Auzitegiaren 59/2017 epaiak aldarrikatutako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioa argudiatzeko aukerari, balio-gehikuntzarik adierazten ez duten egoerak kargatu dituzten HLBGZaren likidazioei dagokienez, eta onartzen zuen halakoetan aurkaratzea bideragarria zela, epaia emateko garaian irmotasunik lortu ez zuten behin-behineko edo behin betiko likidazioekin lotuta.

49. Auzitegi Gorenaren 399/2024 epaiak aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu labur-labur azaldu den aurretiko doktrinan; halere, doktrina berretsi egiten du, haren bitartez erabateko deuseztasuna TLOren 217.1 artikuluaren g) letraz bestelako apartatuetan sartzerik ez dagoenean, baldin eta zerga aplikatzeko egintzari estaldura ematen dion arauaren konstituzio-kontrakotasun adierazpenaren ondoriozko deuseztasuna argudiatzen bada.

50. Aurreko doktrinaren ondoriozko emaitza inkoherentea nabarmentzen du; izan ere, onartzen badu ere Konstituzio Auzitegiak 59/2017 KAEn ez zituela mugatu konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioaren ondorioak, eta egoera finkatuen artean ez zuela jasotzen KALOren 40.1 artikuluak ezartzen ez duen beste bat — gauza epaituaren indarreko epai baten bidez amaituak diren prozesuak—; adierazten duenez, Auzitegi Gorenak egindako interpretazioak dakarren emaitza Konstituzio Auzitegiak ondorioak mugatu izan balitu ekarritako bera da, eta likidazio irmoak ukiezintzat jotzen ditu.

indebido por efecto de la nulidad de pleno derecho de un acto firme de aplicación del tributo.

47. Niega esta doctrina que la STC 59/2017 haga nulas las liquidaciones firmes del IIVTNU con base en el artículo 217.1.a), e), f) y g) de la LGT.

48. La STS de 10 de julio de 2023 (rc 5181/2022), interpretando la STC 182/2021, puso de manifiesto que la limitación de efectos que esta sentencia establecía no alcanzaba a situaciones que pudieran quedar comprendidas bajo el alcance de otras declaraciones de inconstitucionalidad; esto es, aquellas limitaciones no afectaban a la posibilidad de invocar la declaración de inconstitucionalidad proclamada por la STC 59/2017, respecto a aquellas liquidaciones por IIVTNU que hubieren gravado situaciones inexpresivas de incremento de valor, admitiendo la viabilidad de tal impugnación respecto de liquidaciones provisionales o definitivas que no hubieren alcanzado firmeza al tiempo de dictarse la sentencia.

49. La STS 399/2024 introduce importantes cambios en la doctrina previa que se ha expuesto muy sucintamente, aunque reafirma aquella en virtud de la cual no es posible incardinar la nulidad de pleno derecho en los apartados del artículo 217.1 de la LGT, diferentes a la letra g), si lo que se invoca es la nulidad que trae causa de la declaración de inconstitucionalidad de la norma que sirve de cobertura al acto de aplicación del tributo.

50. Pone de manifiesto el resultado incoherente al que abocaba la anterior doctrina pues, si bien admite que el Tribunal Constitucional no había limitado los efectos de su declaración de inconstitucionalidad en la STC 59/2017, ni incluía entre las situaciones consolidadas otra distinta de las que previene el artículo 40.1 de la LOTC —procesos fenecidos por sentencias con fuerza de cosa juzgada—, declara que la interpretación llevada a cabo por el Tribunal Supremo conduce al mismo resultado que si el Tribunal Constitucional hubiera limitado los efectos, llegando a considerar intangibles las liquidaciones firmes.

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

51. Aipatutako epaiak onartzen du ezen, arau orokor gisa eta EKren 161.1.a) artikuluan eta 164.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, konstituzio-kontrakotasuneko epaiek sortzen duten ondorioa dela ezabatzea, ahal den neurrian, konstituzio-kontrako arau bat aplikatzearen ondorioak, salbu eta epaian bertan ondorioak mugatu badira EKn bertan ezarritako printzipioak babesteko, eta, ikusi den bezala, inguruabar hori ez da Konstituzio Auzitegiaren 26/2017 eta 59/2017 epaietan gertatu.

51. Asume la antedicha sentencia que, como regla general y por mor de lo dispuesto en el artículo 161.1.a) y del artículo 164.1 de la CE, el efecto que producen las sentencias de inconstitucionalidad es la eliminación, en todo lo posible, de los efectos aplicativos de una norma inconstitucional, salvo que se haya establecido limitación de efectos en la propia sentencia en orden a tutelar principios establecidos en la propia CE, circunstancia que, como se ha visto, no acaece en las SSTC 26/2017 y 59/2017.

52. Zerga-egintza erabat deusezen ofiziozko berrikuspenari dagokionez, Auzitegi Gorenaren aipatu epaiak ezartzen duenez, legeak egintza deusezak erauzteko aurreikusten dituen arrazoiak, eta bereziki ZLOren 217.1 artikuluaren g) apartatukoa, zeinak itxiera-klausula gisa jokatzen baitu, interpretatu egin behar dira Espainiako Konstituzioak arau baten konstituzio-kontrakotasuna deklaratzen duten epaiei dagokienez nahi dituen ondorioak erabat betetzeko agindu gisa.

52. En relación con la revisión de oficio de actos tributarios nulos de pleno derecho, establece la citada STS que los distintos motivos que prevé la ley para conseguir la remoción de los actos nulos, y en particular el del apartado g) del artículo 217.1 de la LGT, que opera a modo de cláusula de cierre, se han de interpretar bajo el mandato de alcanzar el pleno cumplimiento de los efectos queridos por la CE para las sentencias que declaran la inconstitucionalidad de una norma.

53. Hau da, konstituzio-kontrako arauari ondorioak kentzea hura aplikatzen hasten den unetik bertatik. Eta ondorio hori administrazio- eta zerga-legeriaren erabateko deuseztasunaren kategoriarekin bat datorrela adierazten du.

53. Esto es, la privación de efectos de la norma inconstitucional desde el momento mismo del inicio de su aplicación. Y declara que ese efecto se corresponde con la categoría de la nulidad de pleno derecho de la legislación administrativa y tributaria.

54. Amaitzeko, ondorioztatzen du Konstituzio Auzitegiaren 59/2017 Epaiak ez duela konstituzio-kontrakotasun baldintzatuaren deklarazio bat jasotzen, baizik eta konstituzio-kontrakotasun osoaren deklarazio bat, eta zenbait kasutan konstituzio-kontrako araua aplikatzea eragozten du, baldin eta gaitasun ekonomikoko egoera bat adierazten ez badute.

54. Termina concluyendo que la STC 59/2017 no contiene una declaración de inconstitucionalidad condicionada, sino una declaración de inconstitucionalidad plena que impide la aplicación de la norma inconstitucional a determinados supuestos, aquellos que no sean expresivos de una situación de capacidad económica.

55. Batzordeak dakiela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak ez du doktrinarik finkatu GHLBGZFAri eta GZFAOri dagokienez, bereziki, aipatutako lehen foru-arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikuluen konstituzio-kontrakotasunak irmo bihurtutako aplikazio-egintzetan dituen ondorioekin lotuta; horregatik, Auzitegi Gorenak emandakoa bere egiten du Batzordeak, kontuan hartuta TOLTB eta ZLO, funtsean, aipatutako foru-

55. Como quiera que esta Comisión no tiene constancia de que la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco haya fijado doctrina en relación con la NFIIVTNUG y con la NFGTG, singularmente, en lo referido a los efectos de la inconstitucionalidad de los artículos 4.1, 4.2.a) y 7.4 de la primera norma foral citada en los actos de aplicación que hubieran ganado firmeza, asume la emanada del Tribunal Supremo, dada la identidad sustancial del

ESKU846e3d42-2286-46cd-8636-3159caab8acb

arauekin bat datozela.

**Jurisprudentzia doktrina kasuari aplikatzea**

56. 2017ko martxoaren 31n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2/2017 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 28koa, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena.

57. Xedapenaren azalpen-zatiak adierazten duen bezala, xedapenak premiazko arau-erantzuna ematen die Konstituzio Auzitegiaren 26/2017 Epaiaren ondorioei. Bere artikulu bakarrak aldarrikatzen duenez, 16/1989 Foru Arauan araututako IHLBGZaren zerga-betebehar nagusia sor dadin, lurren balio-gehikuntza beharrezkoa izango da, eta balorazio-arauak ezartzea horretarako.

58. Alabaina, aipatutako foru dekretu-arauaren xedapen iragankor bakarrak (beste apartatu batean transkribatu da eta horretara igortzen dugu alferrikako errepikapenik egon ez dadin) ukiezin bihurtzen ditu 2017ko martxoaren 25a — egun hartan argitaratu zen BOEn Konstituzio Auzitegiaren 26/2017 epaia— baino lehenagoko sortzapenei dagozkien likidazio irmoak, eta haiei dagokionez adierazten du ez dela aplikagarria foru dekretu-arau errepikatuaren artikulu bakarrean ezarritakoa.

59. Oinarri horren arabera ezesten da Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariaren 2024ko irailaren 24ko 2024/2611 Dekretuaren bidez EIBL jaunak 2024ko maiatzaren 9an egindako eskaera.

60. Argi eta garbi ondorioztatzen da HLBGZaren likidazio hark gaitasun ekonomikorik adierazten ez zuen eragiketa zergapetu zuela, eta Errenteriako Udalak ez du horren kontra ezer egiaztatu.

61. Hain zuzen ere, Errenteriako Nafarroa etorbideko 73 eta 71 zenbakietako beheko solairuko eskuineko lokala eta sotoko lokala 2010eko martxoaren 18an salerosteko eskritura publikoetan, bai eta aipatutako

TRLHL y de la LGT con las normas forales antedichas.

**Aplicación al caso de la doctrina jurisprudencial**

56. El 31 de marzo de 2017 se publica en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el Decreto Foral-Norma 2/2017, de 28 de marzo, por el que se modifica el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

57. Tal y como explicita su parte expositiva, la disposición se dirige a dar respuesta normativa de urgencia a los efectos de la STC 26/2017. Su artículo único proclama que, para que nazca la obligación tributaria principal del IIVTNU, regulado en la Norma Foral 16/1989, será necesaria la existencia de incremento de valor de los terrenos, estableciendo al efecto las normas de valoración.

58. Sin embargo, la disposición transitoria única del mencionado decreto foral-norma, cuyo texto se ha transcrito en otro apartado al que nos remitimos a fin de evitar reiteraciones innecesarias, materializa la intangibilidad de las liquidaciones firmes correspondientes a devengos anteriores al 25 de marzo de 2017 (fecha de publicación en el BOE de la STC 26/2017), respecto de las que declara que no resulta de aplicación lo establecido en el artículo único del repetido decreto foral-norma.

59. Sobre este fundamento se sostiene la desestimación por Decreto 2024/2611 del Concejal Delegado del Área de Hacienda de 24 de septiembre de 2024 de la solicitud formulada por don EIBL el 9 de mayo de 2024.

60. Deriva con manifiesta evidencia que aquella liquidación del IIVTNU gravó una operación que no era expresiva de capacidad económica y nada ha acreditado en contra el Ayuntamiento de Errenteria

